



TRAFIKOARI BURUZKO AMOREBIETA-ETXANOKO UDAL ORDENANTZA

Zirkulazioari Buruzko Ordenantza

I KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

1. Artikulua

Estatuko eta Autonomia Elkarteko legeriari buruz, T.J.O.L.aren 25. art. ak eskaintzen dituen agintepideen indarrez, honako ordenantza hau egin da, Amorebieta-Etxano udalerriko hiribideetako zirkulazioa arauzkotzeko xedez.

Horren ezean, ordenantza honek zuzenean araupetzen ez dituen gaietaz, edo ordenantzatik abiatuak Udal Aginteak arupetzen dituen gaietaz, erabakiak hartzeko, Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioa eta Bide-Segurtasunari buruzko martxoaren 2ko 339/90 E.D.L.a aplikatuko da.

2. Artikulua

Aurreko artikuluan adierazitako ondorioetarako, hiribidetzat herrigune barrukoak hartuko dira. Herrigunea elkarren artean 500 m. baino gutxiagoko tartea duten eraikinek osaturiko multzoari deituko diogu (ekainaren 26ko 1/1992 Erregeren Dekretu Legeko 10. art.).

II KAPITULUA

IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA HIRIGUNEAN

ZIRKULAZIO AGENTEAK

3. Artikulua

Udaltzainei dagokie herriguneko trafikoa erregulatzeko lana.

Era berean, beren ardurapekoa da Ordenantza honetan, Trafiko eta Bide-Segurtasunari buruzko Legean eta gainontzeko erabaki gehigarrietan xedatutakoa ez betetzeagatik salaketak jartzea.

4. Artikulua

Trafikoa erregulatzeko, Udaltzainek egin ditzaten seinale eta keinu guztiak bete beharko dira ahalik eta arinen. Lehentasuna izango dute zirkulazio-arauen gainetik eta bestelako seinale finko edo argi-seinaleren gainetik, nahiz eta aurkakoak direla iruditu.

Zirkulazio seinale mota ezberdinen arteko lehentasun maila hauxe da:

1. Zirkulazio agenteen seinaleak.
2. Baliza-seinaleak.
3. Semaforoak.

4. Zirkulazioko seinale bertikalak.

5. Errepideko seinaleak

Zenbait seinalaren aginduak aurkakoak badira elkarren artean, goian adierazitako lehentasun-taularen arabera jokatu da; mota bereko seinaleen kasuan, murriztailearen arabera.

ABIADURA

5. Artikulua

Ibilgailuen abiadura hiri-bideetan, gehienez, 40 km. /ordukoa izango da. Salbuespenak:

§ Ibilgailu bereziak, hala nola galga-seinale gabekoak, atoidunak, motokultoreak edo horien pareko makinak: 25 km./orduko.

§ Gainontzeko ibilgailu bereziak eta ziklomotoreak: 30 km./orduko.

§ Garraio berezietarako baimena duten ibilgailuak: baimenean agertzen dena, aurreko ataletan adierazitakoa baino txikiagoa bada.

6. Artikulua

Hala egiteko arrazoiak baldin badaude, Alkateak ahalmena edukiko du udal-aginpideen eremuan - 339/1990 Erregeren Dekretu Legeaeta aurreko artikuluan adierazitako abiadura-muga aldatzeko.

Era berean, abiadura-muga horrek zirkulazio-arineko zein bidetan ez duen indarririk izango ere Alkateak berak erabaki ahal izango du. Seinale bidez adieraziko da indarrean dagoen abiadura-muga.

7. Artikulua

Debekatuta dago:

- a) Abiadura-norgehiagokak egitea, horretarako ezarritako toki eta uneez kanpo.
- b) Gainontzeko ibilgailuen joana oztopatzea, inolako arrazoirik gabe astiroegi joanez.

8. Artikulua

Ezarritako abiadura-muga dena delakoa izanda ere, gidariek kontuz gidatu beharko dute, abiadura moderatuz, baldintzek hala eskatzen dutenean eta batez ere ondorengo kasu hauetan:

- a) Galtzada estua bada.
- b) Ikuspena urria bada.
- c) Oinezkoentzako aldeak oinezkoak galtzadatik oso hurbil joan daitezzen behartzen baditu; edo oinezkoentzako alderik ez badago, oinezkoak galtzadatik bertatik joan behar izanez gero.
- d) Abiaduraren arabera ikuspena urria bada.

- e) Zoladuraren egoeratik edo eguraldiatik, errepidean ibiltzeko baldintzak onak ez badira.
- f) Errepidean ur, lupetz edo beste zerbaiten putzuak egin direlako, oinezkoak zikinduko badira edo txipriz tinak botako bazaizkie.
- g) Semaforo bako edo lehentasun-seinalerik gabeko bidegurutze edo intersekzioetan.
- h) Haurrak galtzada edo inguruetan egongo direla aurrikus daitekeen aldeetatik igaroz gero.
- i) Semaforo gabeko bide-gurutzeetan, haurrak daudela ikusten bada. Neurri berberak hartuko dira zahar eta ezinduekiko.
- j) Egoera bereziren bategatik, ohiz baino oinezko edo ibilgailu gehiago badago.
- k) Sarrera edo irteera kale-bidean duten eraikin, garaje edo bestelako tegietara sartu edo handik irtetzean.

Gidariak tarte bat utzi beharko dute aurreko ibilgailua eta berenaren artean, aurrekoa bat batean gelditzen bada, beren ibilgailua ere gelditu ahal izateko.

9. Artikulua

Debekatuta dago abiadura bat batean gutxiagotzea, arrisku haundiko kasuetan salbu.

ZIRKULAZIO-ZENTZUAK

10. Artikulua

Norbanakoek debekatuta daukate kale-bidean seinaleak jartzea eta daudenak kentzea edo lekuz aldatzea.

11. Artikulua

- a) Seinalerik edo marka bialik ez badago, ibilgailuak galtzadaren eskuin aldetik joango dira, zirkulaziozentzuaren eskuin aldetik alegia.
- b) Lerro etengabez bananduriko bi zentzuko galtzada duten kaleetan ezin izango da lerro hori inola ere gainditu.
- c) Zirkulazio-zentzu bereko zenbait erreileko galtzada duten kaleetan, aurreratzeko edo zirkulazio beharrek hala eskatzen dutenean besterik ezin izango dute gi dariek beren erreila utzi. Eskuineko erreila ibilgailu pisutsuek eta astiro do azenek erabiliko dute batez ere, hala joanda beste ibilgailu batzuren joana oztopa ez dezaten.
- d) Ezin da erreilak banatzen dituzten marka bialen gainetik zirkulatu, berdin delarik marka horien traza dura nolakoa den.

12. Artikulua

Maniobraren bat egin nahi izanez gero, gidaria ziur egon beharko da maniobra horrekin ez duela zirkulazioa inola ere oztopatuko; horretarako, aurretiaz adierazi beharko ditu bere

asmoak, ibilgailu guztiek dauzkaten norabide-adierazleak erabiliz edo besoarekin seinaleak eginez.

13. Artikulua

Norabidez aldatzeko maniobrak Trafiko eta Bide-Segurtasunari buruzko Legearen 28. art. an xedatutako araei hertsiki jarraiki burutuko dira.

14. Artikulua

Bide beretik itzultzeko zentzu-aldaketetan, gidariak aurretiaz adierazi beharko dizkie bere asmoak atzetik doazen gidariei; tokirik aproposenean burutuko du, bidean ahalik eta traba gutxien egiteko.

15. Artikulua

Ezin izango da zentzu-aldaketako maniobrarik egin ondorengo kasuetan:

- a) Derrigorrezko norabideko plakak edo zoru-markak dituzten bideetan.
- b) Luzerako marra etengabez margoturiko bide zatietan.
- c) Kurba eta sestra-aldaketetan, eta orokorrean, maniobra hori eginez gero gainontzeko erabiltzaileei traba egiteko arriskua dagoen toki gutzietan.
- d) Ibilgailuren bat hurbiltzen bazaio 200 metro baino gutxiagora. Txirrindulari eta edozelako aberek bul tzaturiko ibilgailurik hurbiltzen bazaio 25 metro baino gutxiagora.
- e) Zubi eta tuneletan.
- f) Bidegurutze eta bide-banatzeetan, maniobra hori egiteko prestaturik ez badaude.
- g) Maniobra horrek atzerantz joanera izan badu, irteera gabeko kaleen kasuan izan ezik.

16. Artikulua

Lorategi, monumentu, babesleku, isleta, eta abar dagoelako, ibilgailuek beren ibilbidea aldatu behar badute, horiek ezker aldean utziko dira, hau da, ibilgailuak haien eskuin aldetik joango dira, aurkakoa egiteko dioen seinaleren bat dagoenean izan ezik.

IGAROTZEKO LEHENTASUNAK ETA AURRERATZEAK

17. Artikulua

Gidariak bide eman beharko diete:

- a) Polizia, suhiltzaile eta osasun-zerbitzuen ibilgailuei larrialdietan, Trafiko eta Bide Segurtasunari buruzko Legeak ibilgailu mota horientzat aurrirakusten dituen argi eta hots seinaleez adierazten badute beren presentzia.
- b) Eskuinetik datozen ibilgailuei, lehentasun-seinale rik ez dagoen bide-gurutzeetan. Salbuespena: artiku lu honetako lehen atalean aurrirakusitakoa.

- c) Bidez aldatzean, erabiltzaile kategoría jakin batzu entzat gordetako pista edo erreiletatik zirkulatzen duten ibilgailuei.
- d) Erreilez aldatzean, sartuko garen erreilean gure zentzu berberean doazen ibilgailuei.
- e) Bidez aldatzean, utziko duten bidetik aurrez aurre datozkien ibilgailuei.
- f) Lurrezko bide batetik edo kale-bidearen ondoko jabe dun toki batetik irtetzean.

Hortaz, aipatu ibilgailuak igarotzeko, dagozkien neurri guztiak hartu beharko dituzte gidariak. Ez dute aurrera jarraitu edo maniobrari ekin beharko, hori eginez gero lehentasuna duen ibilgailuaren gidariari bere norabidea edo abiadura bat batean aldaraziko badiote.

18. Artikulua

1. Gidariak igarotzen utziko diete:
 - a) Espaloitik doazen oinezkoei, ibilgailuak baimendutako toki batetik igaro behar duenean.
 - b) Oinezkoentzako igarobideak zeharkatzen dituzten oinezkoei.
 - c) Biraketa-maniobran, baimendutako tokitik igaro tzen hasita dauden oinezkoei.
 - d) Semaforo bidez erregulatutako oinezkoentzako bidetik doazen oinezkoei, argiak hala agintzen due nean.
 - e) Seinaleztaturiko geltokian dagoen garraio publiko batera sartu edo handik irtengo diren bidaiariei, geltoki hori eta ibilgailuaren artean daudenean.
2. Igarotzen utzi behar duen ibilgailuaren gidariak aldeztatik adierazi beharko du bere gidatzeko erarekin, batez ere abiadura motelduz, ez duela arriskutan jarriko eta ez duela eragotziko Lehentasuna duenaren igarotzea. Geratu egin beharko da, beharrezkoa bada.

19. Artikulua

1. Gidari guztiak erreztu behar dute, ahal duten neurrian, arinago doazen ibilgailuaren aurreratzea.
2. Aurreratze maniobrak egin nahi dituzten gidariak, Trafiko eta Bide-Segurtasunari buruzko Legearen 33 eta 34 art. etako aginduak bete beharko dituzte.

20. Artikulua

Debekatuta dago aurreratzea Trafiko eta Bide-Segurtasunari buruzko Legearen 36. art. an aurrikusitako kasuetan, batez ere aurreratuko den ibilgailua oinezkoentzako igarobide batera hurreritzen ari bada. Salbuespena: norabide berean bi erreil baino gehiago egonda, oinezkoentzako igarobidea semaforoz edo agente bidez erregulaturik badago.

21. Artikulua

1. Erreil bat baino gehiago duten zentzu bereko gal tzadetan, erreil bateko ibilgailuak beste bateko ak baino arinago joatea ez da aurreratzetzat ha tuko.

2. Guztiz debekatuta dago zig-zag egiten aurreratzea.

22. Artikulua

Udal Aginteak ahalmena izango du trafiko-beharrizanen arabera kaleetako zirkulazio-zentzuak aldatzeko, seinaleak jarriz edo agenteak erabilia.

23. Artikulua

Debekatuta dago atzerantz gidatzea, aparkatzeko , geratzeko edo ibilbideari ekiteko maniobretan denean izan ezik. Gainera, kasu horietan ezin izango da bidegurutzerik oztopatu ezta 15 metro baino gehiago egin.

Gidariak ezin izango dute atzeratz joatearen maniobrari ekin, aurretiaz ez badute egiaztatu maniobra horrek ez duela arriskurik sortuko eta ez duela trafikoa eragotziko. Astiro arrankatu beharko da beti.

Edonola ere, debekatuta dago bidegurutzeetan edo hamabost metro baino gehiagoko ibilbideetan atzerantz gidatzea.

SEINALEAK

24. Artikulua

Udal-Aginteari dagokio herriko bideetan agindu, ohar, markak edo arriskuak seinaleztatzea.

Horretarako, Alkatetza-Lehendakaritzak, kasuan-kasu, beharrezkoak izan daitezten seinaleak jartzeko, kentzeko edo mantentzeko agindua emango du.

25. Artikulua

Debeku, arrisku, agindu edo betebeharren seinaleztapena, Zirkulazio Kodigoak eta indarrean dagoen gainontzeko Legeriak ematen dituzten arau eta ereduaren arabera egingo da.

ZIRKULAZIOA EGOERA BEREZIAN

26. Artikulua

Zirkulazioa kongestionaturik dagoen kasuetan, gidariak honelaxe jokatuko dute:

1. Ez dira sartuko bidegurutze eta gurutzaguneetan, ezta Garraio kolektiboentzako erreil berezietan ere, beren ibilgailua ibilgetuta, beste ibilgailu eta oinezkoen zeharkako joaitea oztopatuz, geratuko dela aurriz gero.

2. Ibilgailua geratuta badago, ondoko bidetik gu gau den bidera sartu nahi duen lehen ibilgailuari erraztu egingo zaio sartze hori, gure laguntza ba rik bertara sartzea ezinezkoa izango bazaio.

27. Artikulua

Ibilgailuarekin tunel baten edo tegi itxi baten barruan bi minutu baino gehiago geldirik egon behar izanez gero, itzali egin beharko da ibilgailuaren motorra, aurrera joateko aukera izan arte.

28. Artikulua

Gidariak erraztu egin behar dute garraio kolektiboko zerbitzu erregularren zirkulazioa, garraio mota horretako gidariak, seinaleztaturiko arauzko geltokietatik irtetzean, beren joaiteari ekiteko beharrezko maniobrak egin ahal izan ditzaten. Hala ere, horrek ez du esan nahi lehentasuna dutenik.

GELDITZEA ETA APARKATZEA

29. Artikulua

Bidaiariak hartu-uzteko edo zamalanak burutzeko, bi minutu edo gutxiago geratzeari deituko diogu gelditzea.

30. Artikulua

1. Galtzadan geldituz gero, ibilgailua galtzadaren er tzetik ahalik eta hurbilen utziko da.
2. Segurtasun arrazoiak direla eta, lerro bikoitzean gelditu behar bada, geldi daiteke, baina zirkula zioa oztopatzen ez den tokian geldituz gero eta in guruan beste aparkalekurik ez badago. Horrelako ka suetan, gidaria beti geratu beharko da ibilgailu barruan.

31. Artikulua

1. Autotaxiak eta turismo haundi erako ibilgailuak zerbitzu hori araupetzen duen Ordenantzak agintzen duen era eta tokietan geldituko dira. Horrelako or denantzarik ez badago, honako Ordenantza honek gel ditzeei buruz ematen dituen arau orokorrak beteko dituzte.
2. Autobusak, bidaiariak hartu edo uzteko, Udal Agin taritzak erabakitako edo seinaleztaturiko geraleku etan besterik ezin izango dira gelditu.

32. Artikulua

Ikasleentzako garraio zerbitzua duten Ikastetxeetako titularrei, ikasleak jasotzeko oinarrizko ibilbideak proposa ditzatela eska diezaieke Udal Agintaritzak. Ibilbideak onartutakoan, Agintaritzak horrek ibilbide bakoitzean egongo diren geltokiak erabaki ahal izango ditu, eta Debekatuta egongo da ikasleak geltoki horietatik kanpo jasotzea.

33. Artikulua

Debekatuta dago gelditzea ondoren zerrendatzen diren kasu eta tokietan:

- a) Beste ibilgailuen zirkulazioa eta oinezkoak oztopatu edo eragozten badira.
- b) Lerro bikoitzean, trafiko haundiko kale eta ordu etan, nahiz eta Ordenantza honetako 30. art. an ezarritako baldintzak bete.
- c) Trafikoa bideratzeko diren irl eta, erdibitzaile, ba besleku eta bestelako elementuen gainean.
- d) Eraikinetara sartzeko edo horietatik irtetzeko ibil gailuentzako pasabideetan, itxita ez badaude.
- e) Seinaleztaturik dauden oinezkoentzako pasabideetan.
- f) Herri barruko bidegurutzeetan.

- g) Zubi, trenbide, tuneletan, eta pasagune jasoen azpi an, aurkakoa dioen seinalerik ez badago.
- h) Geldituz gero, gainontzeko gidariek ezin izango ba dute eurei zuzenduriko trafiko seinaleak ikusi.
- i) Kurba eta sestra-aldaketetan, eta geldituta dagoen ibilgailua arriskurik gabe aurreratu ahal izateko behar den ikuspena nahikoa ez den kasuetan.
- j) Zerbitzu publikoko ibilgailuentzako geltokietan, geltokiak ongi seinaleztaturik daudenean.
- k) Izkinatik bost metro baino gutxiagora.
- l) Erreil berezitik joateko baimena duten ibilgailuak ezin dira gelditu, berentzako izendatutako geltoki etatik kanpo.

34. Artikulua

Ibilgailuaren bi minutu baino gehiagoko gelditzeari deitzen zaio aparkatzea, gelditze hori ez baldin bada zirkulazioak behartuta edo bestelako arauzko zerbaitengatik egiten.

35. Artikulua

Bateriako aparkamendua, ibilgailuak bata bestearen alboan aparkatzeko erari deitzen zaio. Ilarako aparkamendua, ibilgailuak bata bestearen atzean aparkatzeko erari deitzen zaio.

36. Artikulua

1. Zirkulazio-zentzu biko bideetan, ibilgailuak beren martxazentzuko eskuinaldean aparkatuko dira beti.
2. Zirkulazio-zentzu bakarreko bideetan, eta aurkako rik dioen seinalerik ez badago, ibilgailuak galtza daren bi aldeetan aparkatu ahal izango dira, beste ibilgailu batzuk igarotzeko moduko tartea, gutxienez erreil batekoa, utziz gero.
3. Aurkakorik dioen seinalerik ez badago, ibilgailuak galtzadaren ardatzarekiko paraleloki aparkatuko dira.

37. Artikulua

Gidariek ezin dute ibilgailuaren gorpilen kanpo-azalera eta espaloi-ertzaren bitartean hogei zentimetro baino gehiagoko tartea utzi. Ibilgailu bat aparkatzen denean, gainontzeko espazio erabilgarria beste gidariek erabiltzeko moduan gera dadin egingo da.

38. Artikulua

Udalbatzarrak kale bideko zenbait leku geltoki edo autobusen terminal modura erabiltzeko toki izenda ditzake.

39. Artikulua

Bidaiariak edo bestelako edozein merkantzia garraiatzeko ibilgailuak ezin izango dira kale-bide publikoetan aparkatu, Udal Agintaritzak Udal-Dei baten bidez adieraziko duen ordutik aurrera.

40. Artikulua

Debekatuta dago aparkatzea ondoren zerrendatzen diren kasu eta tokietan:

- a) Gelditzea debekatuta dagoen kasu eta toki berbere tan.
- b) Oinezkoentzako espaloi, ibilbide eta aldeetan.
- c) Lerro bikoitzean, beti.
- d) Zama-lanak egiteko izendaturiko tokietan.
- e) Zerbitzu publiko, erakunde ofizial eta abarretako ibilgailuak aparkatzeko gorderiko tokietan.
- f) Ikuskizun edo ekitaldi publikoetarako diren eraiki nen sarreren aurrean, ikuskizun edo ekitaldiak buru tzen diren orduetan, larrialdia gertatuz gero jende aren irteera eragotzia izan ez dadin.
- g) Aparkatuta dagoen ibilgailuak beste ibilgailuak iga rotzekouzten duen zabalera erreil batena baino txi kiagoa bada.
- h) Seinaleztaturik dauden alboko autobus geltokietatik hiru metro baino gutxiagora, aurkakoa dioen seinale rik ez badago.
- i) Polizia postuen aurrean eta larrialdietako zerbitzu en irteeren aurrean.
- j) Pertsoneri eraikinetatik irtetzen eragozten zaienean.
- k) Egokiro aparkaturik dagoen beste ibilgailu baten ir teera eragotzi edo trabatu egiten den kasuetan.
- l) Gurdibideetan eta gurdien aurrean.
- m) Kategoria jakin bateko ibilgailuentzako erreiletan.
- n) Ibilgailuak gelditzeko, besterik ez, erreserbatuturiko tokietan.

IBILGAILUAK IBILGETZEA ETA KALE-BIDETIK KENTZEA

41. Artikulua

Ibilgailu bat ibilgetu egingo da:

a) Halabeharrez, ondorengo kasuetan:

1. Istripua jasanda, edo aberia bategatik, aurrera joateko moduan ez badago.
2. Gogo txarra duelako, gidaria ibilgailua normaltasu nez eramateko moduan ez badago.
3. Gidariak, behartuta egon arren, ezetza ematen badio alkoholemia frogak egiteari edo sorgokari, psikotropiko edo bizgarriak hartu diren ikusteko frogak egiteari; frogak eginda, odolean, litro bakoitzeko 0,5 alkohol gramu baino gehiago dituela ikusten bada; edo, 0,25 botatako aireko litroko alkohol miligramu; edo kopuru hori txikiagoa izanda ere, alkohol-toxikazioa duelako sintoma argiak ba ditu. Ibilgailuaren ibilgetzea, Trafiko

eta Bide Segurtasunari buruzko Legean aurrikusitako kasuetan eta erari jarraiki egingo da.

b) Udal Agintaritzaren aginduz, ondorengo kasuetan:

1. Gidariak gidatzeko baimena ez badu, edo daukan bai menak baliorik ez badu. Azken kasu horretan, bere nortasuna, helbidea eta baliiodun baimena duela egi aztazten badu, ez zaio ibilgailua ibilgetuko.
2. Gidariak ibilgailuaren Zirkulatzeko Baimena edo horren ordezkoko agiririk ez badu, eta bere nortasun eta helbideari buruzko zalantzarik egonez gero.
3. Ibilgailuaren egoeraren ondorioz, arriskutsua dela edo kalebideari kalte egiten diola erizten bada.
4. Zirkulazio-Kodigoak, edo ibilgailu horrek eraman dezan lizentzia berezi baten, baimendutako garaiera edo zabalera baino haundiago batez zirkulatu ba du.
5. Ibilgailuaren karga edo luzera, bere baimenean agertzen dena baino %10etik gorakoa bada.
6. Bidaiari kopuruak, horien posizioak edo garraiatzen diren gauzen ezarrerek gidariaren mugitzeko gaita suna edo bere ikuspegia murrizten badute.
7.
 1. Ibilgailua arauzkontrako eran badago aparkatuta, Zirkulazioari traba haundiegirik egin ez arren, eta bere gidaria bertan ez badago, edo egonda ere ibil gailua handik kendu nahi ez badu, Agintaritzaren Agerentzaren teek prozedura mekaniko bat erabiliz ibilgailua ibilgetu ahal izango dute, zirkulatu ez dezan.
 2. Ibilgetzea baliabide mekanikoak erabilia burutu denean, ibilgailuaren gidariak ibilgailua berriz zirkulatu jartzeko baimena eskatuko dio Aginpidetara Agintaritzari. Horretarako, lehenengo ibilge tzeak sortarazitako gastu guztiak ordaindu beharko ditu, dagokion Udal Ordenantzak ezarritakoaren araberak.

42. Artikulua

Ibilgetzea Udal Agintaritzak adierazten duen kale-bideko tokian burutuko da, eta ez da bukatuko, ibilgetzea gertarazi zuten akatsak konpondu arte, edo ibilgailua handik eraman arte, Agintaritzahorrek ezarritako baldintzen arabera.

43. Artikulua

1. Udal Agintaritzak ibilgailuak kale-bidetik kentzeko eta ibilgailu- deposituetara eraman daitezela agindu ahal izango du, ibilgailuak zirkulazioa eragozten badute edo, zirkulazioaren aldetik, arriskua sortarazitako badute.
2. Ibilgailua ez da dagoen tokitik eramango, gidaria bertan egonik, berehala hartzen baditu bere egoera irregularra konpontzeko neurri egokiak.
3. Ibilgailuak deposituetara eramateko, Udalbatzarrak baimendutako zerbitzu partikularrak erabili ahal izango dira.

44. Artikulua

Ibilgailuak honako kasu hauetan erretiratuko dira dauden tokitik:

1. Istripu, kolpaketa edo antzekorik gertatu delako, aginpidedun lege edo administrazio agintaritzak ibilgailua gorde egin behar dela erabakitzen badu.
2. Ordenantza honetako 41. art. an aurrikusitako kasu etan, ibilgailua ibilgetu zenetik berrogeita zortzi ordu baino gehiago igarota, ez bada ibilgetzea sor tarazi zuen zioa konpondu.
3. Ordenantza honetako 40. art. an aurrikusitako kasu etan.
4. Kale-bidean aparkatutako ibilgailu bat abandonatuta dagoela pentsarazten duten baldintzetan badago.
5. Aurretiaz iragarri diren behar bezala baimendutako komitiba, prozesio, kabalgata, kirol-froga edo bes telako ekitaldiak burutzeko okupatu behar diren ibilbide edo espazioetan aparkatzeagatik.
6. Kale-bidean konponketa-lanak egiteko edo premiazko arrazoiengatik, beharrezkoa den kasu guztietan.
7. Ibilgailu bat aparkaldi mugatuko tokian hogeita lau ordu baino gehiago aparkatuta egonez gero.
8. Aldi bateko baldintza bereziei erantzuteko (339/1990 Erregeren Dekretu Legea), aginpidedun Agintaritzak ezarritako beste edozein kasutan.

45. Artikulua

1. Erretiratzen diren ibilgailuak gorde egingo dira Udal Agintaritzak ezarritako tokian.
2. Ibilgailuaren jabeak ibilgailu horren garraioagati ko eta gordelekuan egon izanagatikozenbatekoa or daindu beharko du, aurreko art.ko 5. eta 6. ahapal dietan aurrikusitako balizkoetan izan ezik.

ISTRIPU ETA KALTEAK

46. Artikulua

Istripu baten nahasturiko gidari orok honako neurri hauek hartu beharko ditu:

1. Ahalik eta arinen gelditu, zirkulazioa arriskutan jarri gabe.
2. Zirkulazioaren segurtasuna mantentzeko ahaleginak egin, agintaritza-agentek heldu arte.
3. Hildako edo zaurituen bat badago, honela jokatu da: zirkulazioaren segurtasunaren aldetik arrisku rik sortzen ez bada, ez da gauzen egoera aldatuko eta ahaleginak egingo dira istripuaren erantzunki zuna nork izan duen erabakitzen lagun dezaketen aztarna edo bestelako gauzarik gal ez dadin.
4. Ez da istripu-tokitik alde egingo agintaritza-agen teak heldu arte, ondorengoetan izan ezik: eraginda koen zauriak txikiak badira, sorospena inork ere behar ez, edo eragindako batek ere eskatzen ez ba du.
5. Norberaren nortasun-datu beharrezko guztiak eman, istripuan nahasturiko inork hala egiteko eskatuz gero.
6. Agintaritzak edo bere agenteek adierazitako frogak egin, hots, alkohol-kutsaketa gradua, edo sorgorka ri, psicotropiko edo bizgarriak hartu diren egiaz tatzeko frogak egin.

47. Artikulua

Zirkulazioa erregulatzeko seinaleei edo kale-bideko beste edozein elementuri kalteak sortarazten dizkion gidariak, ahalik eta arinen jakinerazi beharko dio hori Udal Agintaritzari.

48. Artikulua

1. Aparkatuta dagoen gidari gabeko ibilgailuren bati kalteren bat egiten dion gidariak, interesatua bi latzen ahaleginduko da, hari gertatutakoaren berri eta bere datuak emateko.

2. Ezin izan badu bilatu, hurbilen dagoen AgintaritzaAgenteari emango dio gertatutakoaren berri, edo, osterantzean, kaltetutako ibilgailuaren jabearekin hitz egin dezakeen pertsonaren bati.

SEGURTASUN UHALA ETA KASKOA

49. Artikulua

Ziklomotore eta motordun ibilgailuen gidari eta bidaideek, derrigorrez erabili behar dituzte segurtasun uhalak, kaskoak eta bestelako babes-elementu guztiak ere, Zirkulazioari buruzko Araudiaren 11. kapituloko 116. art. an adierazten diren kasu eta baldintzetan, atal horrexetan ere aipatzen diren salbuespenekin, beti ere, horri buruz eman diren nazioarteko gomendioen arabera, eta gidari ezinduen baldintza-bereziak kontutan harturik.

IBILGAILUEN ZIRKULAZIORAKO BALDINTZAK

50. Artikulua

Trafiko eta Bide Segurtasunari buruzko Legeak ezarritako baldintza guztiak betetzen ez dituen ibilgailuak ezin izango du zirkulatu. Testu horretan eta gainontzo xedapen aplikagarrietan ezarritako agiri guztiak, ibilgailuarenak eta doakionarenak ere, eraman beharko ditu gidariak beti.

51. Artikulua

Ikuspen baldintzak egokiak ez badira, ibilgailuak hurbilerako argiak piztuta eramango ditu. Debekatuta dago herriko bideetan urrunerako argiak iziotuta eramatea.

52. Artikulua

Ibilgailuetako gidari eta bidaideek ahaleginak egin behar dituzte zaratarik ez egiteko, batez ere gauez.

Horretarako, eta Ordenantza eta Bandoetan xedatutakoren aldetan gabe, debekatu egiten da:

1. Bozina jotzea, ezinbesteko kasuetan eta horren ordez argiseinalerik egin ezin daitekeenean izan ezik.
2. Zamalanak burrunba haundiz egitea.
3. Ibilgailuaren ateak, motorraren tapa edo maleta-le kuko atea indarkeriaz ixtea.
4. Ihes-librearekin zirkulatzea.
5. Ibilgailuan jarritako irrati, magnetofono edo antzerakoak volumen haundiz erabiltzea.
6. Motorra martxan edukitzea, ibilgailua aparkatuta dagoenean.
7. Biraketa-erregimen haundiegiz erabiltzea motorra.

53. Artikulua

1. Jabeek beren ibilgailuak behar bezalako baldintze tan eduki behar dituzte, eta indarrean dagoen lege riak baimentzen duen ke eta gas kaltegarri kopurua ez gainditzeko eran erabili behar dituzte ibilgai luok.
2. Ibilgailu baten ke eta gasek aipatu mugak gaindi tzen badituzte, jabeak ez du ibilgailu hori erabi liko, eta grua bat eskatu beharko du ibilgailua akats hori konponduko duen taller batera eramateko.
3. Arau horiek betetzen ez dituztenei hutsegite LARRI bezala zigortuko zaie, eta ibilgailua ibilgetu egingo zaie egoera normalizatu arte.

ALKOHOLEMIA

54. Artikulua

Kode Penalean xedatutakoaren kaltetan gabe, eta Epailaritza- Aginteak erabaki dezanaren kaltetan agabe, debekatuta dago odolean, litro bakoitzeko, 0,5 alkohol gramu baino gehiagorekin gidatzea edo 0,25 botatako aireko litroko alkohol miligramu baino gehiagorekin; kopuru hori txikiagoa izango da gidari batzumentzako, aplikagarriak zaizkien arau espezifikotetan halaxe ezarrita badago. Debekatuta dute gidatzea sorgorkari, psikotropiko edo bizgarriak hartu dituztenak, eta horrelakorik hartu duten ala ez, indarrean dagoen bide-zirkulazioari buruzko legeriak ezarritako prozedura erabiliz neurtuko da.

Agintaritzak edo bere Agenteek ondorengoei eska diezaiekete alkohol-kutsaketa neurtzeko frogak egin ditzatela:

a) Trafiko-istripu batean zuzenean nahasturiko kale-bi dearen edozein erabiltzaileri.

b) Honako baldintzaren bat betetzen duen edozein gida riri:

1. Alkoholdun edarien eraginpean dagoelako sintoma argiak izatea.
2. Zirkulazio-Kodigoaren 289 artikuluko I atalean aipatzen den arau-hausteren bat egin izanagatik salaketa jartzen bazaio.
3. Barne-Ministeritzak, Ertzaintzak edo Udaltzain goak jarritako badaezpadako kontroletan froga hori egiteko agindua jasoz gero.

Alkohol-neurketarako derrigorrezko frogak, ofizialki onartutako etilometro edo alkoholimetro-modeluak erabilia burutuko dira.

Dena dela, kale-bidearen erabiltzaileek izan dezaten alkoholkutsaketa graduaren azterketari buruzkoa den 1981eko uztailaren 29ko Aginduari eta gainontzeko arau aplikagarriari jarraiki jokatukoda.

INSTALAZIOAK KALE BIDEAN

54 bis. Artikulua

1. Debekatuta dago zirkulazioa edo aparkatzea oztopa tuko duen edozelako traba jartzea kale-bidean.
2. Era berean, ezin izango da jarri zirkulazio-seina leak edo zoruko margoa ikusten uzten ez duten kar tel, zutoin, farol, toldo, markesina, edo antzera korik; ezta, bere ezaugarriengatik, gidaria nahas eraziko duen beste ezer ere.

55. Artikulua

Kale-bidean obrak egingo badira, kale-bideko obren balizamendu eta seinaleei buruzko arau orokorretan ezarritakoa bete beharko da, baita Hirigintza eta errepideei buruzko Legeetan xedatutakoa ere.

56. Artikulua

Ezin izango da kale-bidean pelikula, dokumental etab. filmatu, aginpidedun Udal Zerbitzuen berariazko baimenik gabe. Udal Zerbitzukoek adieraziko dute, dagokion baimenean, fimaketabaldintzak zernolakoak izango diren: zenbat iraun dezakeen, ordutegia, erabil daitezkeen elementu eta ibilgailuak, aparkalekua, etab.

57. Artikulua

Ezin izango da kale-bidean inolako kirol-froga, prozesio, segizio, kabalgata, etab. burutu, nondik-norako ibilbideak, segurtasunneurriek eta egokitzen jotzen diren beste baldintza batzuek Udalaren baimena jaso arte.

Beti ere, Zirkulaizo-Kodigoaren bigarren eranskinean xedatutakoaren arabera jokatu da.

OINEZKOAK

58. Artikulua

Oinezkoak beraiantzat diren espaloi, ibiltoki eta kaietatik joango dira. Salbuespen gisa, dagozkien neurriak harturik eta zirkulazioa larriki eragozten ez badute, galdatzadatik joan ahal izango dira ondoren zerrendatzen diren kasuetan:

1. Gauza oso haundiak garraiatuz, espaloitik joanez gero beste oinezkoen joatea sano tratatuko badute.
2. Segizioa osatuz badoaz.
3. Gurpil-aulki baten doazen ezinduak.

Oinezkoentzako alderik ez dagoenentan, oinezkoak galtzadatik joango dira, baina erdialdetik urrunen dagoen tokitik.

59. Artikulua

Oinezkoak ezin dira espaloian taldeak osatuz gelditu, horrela egonda beste oinezkoen igarotea oztopatuko badute.

Arriskua sortarazi edo zirkulazioa eragotzi dezaketen gauzak, edo zikindu egin dezaketen sustantzia edo hondakinak garraiatuz gero, ahalik eta neurri gehien hartu beharko dute beste oinezko batzuk ez molestatzeko edota ingurugiroari kalterik ez egiteko.

60. Artikulua

Oinezkoek debekatuta dute:

1. Baimendutako tokietatik kanpo zeharkatzea galtzada.
2. Beste oinezkoak molestatzeko moduan zirkulatzea, salto edo korrika egitea.
3. Autobusak edo zerbitzu publikoko bestelako ibilgai luak espaloi edo aterpeetatik kanpo itxarotea edo galtzadara irtetzea geldi daitezela eskatzeko.
4. Martxan doan ibilgailu batera igotea edo bertatik jeistea.

61. Artikulua

Oinezkoek galtzada zeharkatu behar badute, bizkor egingo dute, gelditu barik, beste oinezkoei traba egin gabe eta zirkulazioa oztopatu gabetik. Dena dela, honako neurri hauek hartuko dituzte:

1. Semaforo bidez erregulaturiko igarobideetan, argiek agintzen dutena bete beharko dute. Ez dute igarobi dea zeharkatuko, beraiei zuzenduriko seinaleak hala egiteko agindu arte.
2. Agente bidez erregulaturiko igarobideetan, horiek agintzen dutena bete beharko da.
3. Beste igarobideetan, ez dute galtzada zapalduko, hurbilen datozen ibilgailuak zenbatera dauden eta zer abiadurarekin datozen egiaztatu eta gero, bidea arriskurik gabe zeharka dezaketela ikusi arte.
4.
 - a) 50 m. inguruan oinezkoentzako igarobiderik ez badago, bidea bazter batetik zeharkatuko da, bide aren ardatzarekiko perpendikularki.
 - b) Kasu horretan, bidea zeharkatu baino lehenago Ibilgailuen zirkulazioa ez dela oztopatuko egiaztatu beharko da; ibilgailuei bide eman beharko zaie, eta, hala badagokio, oinezkoa gelditu egin beharko da, galtzada zeharkatzen egon arren.

ZAMALANAK

62. Artikulua

Merkantzien zamalanak burutzean, ondorengo arauak bete beharko dira:

1. Espaloiko ertzean ilaran jarriko dira, espaloiare kiko paraleloan, ibilgailuaren aurrekaldea zirkulazioaren zentzu berean jarriko. Ez da espaloitik doazen zirkulazioa oztopatuko, ezta eraikinetara ko sarrera ere. Beharrezana egonez gero, ibilgailua tokiz aldatzeko moduan egongo da beti.
2. Merkantzien zamalanak, espaloia ertzetik hurbi len dagoen ibilgailuaren aldetik burutuko dira.
3. Zamalanak kontu haundiz burutuko dira, ahalik eta zarata gutxien eginez, eta beste oinezko eta auzo koei ahalik eta gutxien molestatzen saiaturik.
4. Zamalanak behar beste langilerekin burutuko dira, lehenbailehen bukatzeko.
5. Debehatuta dago zamalanetan kargatzen edo deskarga tzen ari diren merkantzia edo gauzak lurtean uztea.

63. Artikulua

Udal Agintaritzak zamalanak non eta zer ordutan egin daitezkeen erabaki dezake (Zirkulazioko Araudi Nagusiaren 93. art.).

64. Artikulua

1. Planta berriko etxeen eraiketan, lan-baimena eska tzen dutenek langune barruan zamalanak burutzeko ibilgailuek non aparkatu badutela egiaztatu beharko dute.

2. Hori egitea ezinezkoa bada, eskatu egin beharko da obragatiko aparkamentu-erreserba; eskatzaileak, aurreko atalean aipatzen den toki-erreserba egitea ezinezkoa zaiola egiaztatu beharko du dagokion txosten-teknikoaren bidez. Udal Agintaritzak, aurkezten diren agiriak ikusita, erabakiko du erreserba hori egiteko baimena ematea egokia den edo bai mena emanez gero ea zer baldintzetan ematen den.
3. Aipaturiko erabilerarako aparkamendu-erreserbak, edo beste edozertarakoak ere, dagokion Ordenantza Fiskalean ezarritako ariela ordaindu beharra sorta razten dute.
4. Dena dela, indarrean dauden hirigintza-planeamendu eta legeetako xedapenak bete beharko dira.

65. Artikulua

Kale-bidean ezin da edukinontzirik jarri, Udal Agintaritzaren berariazko baimenik gabe. Udal Agintaritzak baimen hori eman edo ukatu egingo du, kokatu nahi den aldeko zirkulazio eta aparkaleku baldintzen arabera.

66. Artikulua

1. Udal Agintaritzak ahalmena du kategoria jakin bateko ibilgailuen zirkulazioa, zamalanak eta aparkatzealdia mugatzeko.
2. Horretarako, Alkatetza-Lehendakaritzak, udal dei edo bando baten bidez, egokitzat jotzen dituen mugak jarri ahal izango ditu.
3. Orokorrean eta hirigunean zamaketa deszamaketa lanak egin behar direnean izan ezik, Baimendutako Gehieneko Pisua (B.P.G) 8.000 Kg. (8 T.) baino gehiagoko ibilgailuen zirkulazioa debekatzen da aipatu hirigunean.

67. Artikulua

Arautegi orokorrean ezarritako pisua eta neurria gainditzen dituzten ibilgailuek, dagozkien baimenez gain Udal Agintaritzak luzatutako baimen berezi bat ere eduki beharko dute herriko bideak zeharkatzeko. Baimen horretan ibilgailuaren ibilbidea zein izango den eta zer ordutan igaro daitekeen zehaztuko da.

68. Artikulua

Legez aurrikusitako kasua salbu, ezin dute zirkulatu ondorengo ibilgailuek:

1. Bost metro baino gehiagoko luzera izanik, karga goiko aldetik bi metro baino gehiago irtetzen bada edo hiru metro baino gehiago atzeko aldetik.
2. Bost metro baino gutxiago izanik, karga ibilgailuaren luzeraren heren bat baino gehiago irtetzen bada.
3. Merkantzia arriskutsuak garraiatzen dituztenek.
4. Atezko ateska jausita daramaten kamioi eta kamione tek.
5. Merkantiak garraiatzen dituzten aberez bultzaturiko ibilgailuek.

69. Artikulua

Pertsonak garraiatzen dituzten aberez bultzaturiko ibilgailuek aginpidedun Udal Agintaritzak emandako baimen berezia eduki beharko dute; bertan, nondik eta zer ordutan zirkulatu dezaketean zehaztuko da.

70. Artikulua

Zarama jaso eta garraiatzeko ibilgailuek, eta abereak, jakiak eta materia sukoiak garraiatzeko ibilgailuek indarrean dagoen Zirkulazio Kodigoaren 64. art. ak eta indarrean dauden gainontzeko Legeek agintzen dutena bete behar dute.

71. Artikulua

1. Agintaritzak erabakiko du mandu bikoitzeko ibilgailuek non egin ditzaketen maniobra-saioak eta saio horiek araupetuko dituzten arauak zeintzuk izango diren.
2. Gidatze-baimena lortzeko azterketak egiteko zirkui toak nondik norakoak izango diren ere Udal Aginta ritza horrek erabakiko du.
3. Aldi berean, gidatze-praktikak zein bidetan ezin daitezkeen egin ere zehaztuko du. Bide horietan irakasleak edo gidatzebaimena duen norbaitek gida tu beharko du derrigorrez.

72. Artikulua

Udal Agintaritzak ibilgailu kategoria jakin batentzako erreil bereziak ezarri ahal izango ditu. Kategoria horretakoak ez diren beste ibilgailu guztiek debekatuta izango dute erreil berezi horretatik joatea.

73. Artikulua

Udal Agintaritzak ibilgailuen zirkulazioa guztiz edo zati bat, behin-behingoaz edo behin-betiko, ixteko agindua eman dezake, hala egin behar dela deritzan bideetan.

74. Artikulua

1. Jabetza aldetik pribatuak izan arren, erabilera publikokoak diren bideetako aparkamendu eta zirkulazioa araupetzea Udal Agintaritzari, berari bakarrik, dagokio.
2. Ondorioz, Udal Agintaritzaren baimenik gabe ezin izango da zirkulazioa ebaki ezta inolako seinale edo oharrik jarri ere.

75. Artikulua

Udal Agintaritzak trafikoa ordenatu edo antolatzeko, egoki deritzan tokietan, aparkamendu mugatu, dohain edo ordaindua jar dezake; aparkamendu horiek kontrol-disko, parkimetro edo beste edozein sistema bidez erregulatuko lirateke.

76. Artikulua

Baldintza berezietan, larrialdietan edo interes publikoko arrazoiak dauden kasuetan, zirkulatzeke, zamalanak burutzeko eta aparkatzeko Ordenantza honetan ezarritako arauak ez betetzeko baimena eman ahal izango du aginpidedun Udal Agintaritzak, era arrazoitsu, objetibo eta zentzuzkoan, ohiz kanpoko egoeraren arabera behar den beste denborarako.

77. Artikulua

Udal Agintaritzak, trafiko aldetik eta aparkatzeko arazo Larica dituzten aldeetako bizilagunentzako aparkaleku bereziak gorde ahal izango ditu kale-bidean.

III. KAPITULUA

ZIGOR-PROZEDURA

78. Artikulua

Alkatetzari dagokio Ordenantza honetan agintzen dena ez betetzeagatiko isunak jartzea, lege-aplikagarriek ematen dizkieten konpetentzien arabera.

79. Artikulua

1. Arau-urrapena egin duen gidaria ezezaguna bada, sa laketaren berri Trafikoko Burutzagitza Zentralean ibilgailuaren titular modura agertzen denari emango zaio.
2. Ibilgailuaren jabeak arau-urrapena egin duen gida riaren datuak eman beharko ditu; egin ezean, berak ordaindu beharko du dagokion diru-isuna.
3. Ezarritako isuna izenpetuta, gidariak ez badu or daintzen, ibilgailuaren jabeari eskatu ahal izango zaio ordain dezala.

80. Artikulua

1. Edonork aurkez ditzake Ordenantza honetako aginduak urratzen dituzten ekintzen aurkako salaketak, edota Trafikoa, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioa eta Bide Segurtasuna araupetzen dituzten Legeetako aginduak urratzen dituzten ekintzen aurkako salaketak ere.
2. Trafikoa zaintzeko zerbitzuaz arduratzen diren Agenteeek derrigorrez salatu behar dituzte aurreko atalean adierazitako ekintzak.

81. Artikulua

Borondatez aurkezten diren salaketak honelaxe ihardupidetuko dira:

1. Egintza gertatu den tokitik hurbilen dagoen Agente trafikozaindariari aurkeztuko zaio salaketa; edo, osterantzean, Alkate-Lehendakari Jaunari zuzenduri ko idazki bat aurkeztuko da Udaletxeko Erregistro Orokorrean.
2. Salaketan honako datu hauek adierazi beharko dira: salaketa aurkezten duenaren izen-abizenak, helbidea eta profesioa; salatuari dagokionez, gauza bera; horrez gain, gertatutakoaren laburpena, non, noiz eta zer ordutan gertatu den zehaztuz; ibilgailuaren matrikula; baita, jakinez gero, ibilgailu marka, modelo eta colorea ere.
3. Salaketa agente trafiko-zaindariei aurkezten ba zaie, agenteek salaketa-orria idatziko dute, eta bertan, aurreko atalean zerrendatutako guztiaz gain, ea salatutako arau-haustea ikusi duten eta ea salatuari salaketa-orriaren kopia bat eman ahal izan dioten ere adieraziko dute.
4. Salaketa jasota, salatuari ez bazaio salaketa-orri aren kopiarik eman, salaketaren jakinerazpena igorriko zaio, egoki baderitzo salaketaren aurkako jazarpena, frogak edo froga-proposamenak aurkez di tzan, idatziz, hamabot eguneko epea igaro aurretik. Hori egindakoan, ondorengo artikuluan aurrikusten den eran ekingo zaio prozedurari.

82. Artikulua

Derrigorrez aurkeztu beharreko salaketak honelaxe ihardupidetuko dira:

- 1.

- a) Salaketa egiten duen Agenteak salaketa-orri hi rukoiztua beteko du: ale bat arau-urratzaileari emango dio; beste bat, Udal Agintaritzari bidaliko dio; eta azkena, berak gordeko du.
 - b) Salaketa-orri horretan haxe jarriko da: gerta tutakoaren laburpena; non, noiz eta zer ordutan gertatu den; ibilgailuaren matrikula; eta, bertan badago, salatuaren izena eta helbidea.
 - c) Salaketa-orria salatzaileak eta salatuak izenpe tuko dute. Orri hori izenpetzeak ez du bertan ida tzitakoa onarterazten.
 - d) Arau-urratzaileak ez badu izenpetu nahi, edo ez badaki, Agenteak erasota utziko du hori, eta horrek izenpearen ondorio berberak izango ditu.
 - e) Salaketa egiten den unean gidari salatua ez ba dago bertan, orria ibilgailuaren haizetako-garbi gailuak eutsita jarriko da. Horrek ez du esan nahi salaketaren jakinerazpena eginda dagoenik.
2. Jakinerazpen balioa duen salaketa-orria eman osteko hamabost laneguneko epean, salatuak deskargu-idaz kia aurkeztu ahal izango du, egoki deritzana adi erazi eta bere aldeko frogak emateko.
 3. Salaketa-orrian adieraziko diren behar bezala zuri tutako arrazoiengatik ez bazaio eman salaketaorria, orri horren edukinaren berri emango zaio sa latuari. Jazarpenak aurkezteko hamabost lan-eguneko epea duela jakineraziko zaio, eta ondoren, Ordenantza honentan ezarritakoari jarraiki ihardupidetuko da espedientea.
 4. Dena dela, zigor-prozedura eta martxoaren 2ko 339/90 Erregeren Dekretu Legeko VI. Atalburuan araupetutako jazarpen erregulatuak aplikatuko dira.

83. Artikulua

Agenteen salaketa bidez hasitako prozedura bati deskarguidazkia aurkezten bazaio salatutako ekintza edo beste edozer inpugnatzeko, idazki hori salaketa jarri zuen Agenteari emango zaio, horri buruzko txostena egin dezan. Hasieran esandakoa berretsi egiten badu, horixe hartuko da egitzat, aurkakoaren frogarik ez badago behintzat.

84. Artikulua

Jakinerazpenen ondorioetarako, Trafiko-Buruzagitzako Gidari- Erregistro Orokorrean agertzen den helbidea hartuko da gidari horren helbide balioduntzat.

85. Artikulua

Ordenantza honetako aginduak betetzen ez badira, Kode Penalak hauspenetarako ezarrita dituen epeak aplikatuko dira. Indargaltze-epea eten egingo dute indarrean dagoen Zirkulazio-Kodigoko 276. art. ak aipatzen dituen epailaritza-ekintzek eta testu bereko 278. art.ko II atalean aurrikusitako diligentziek ere.

86. Artikulua

Zigor-espedientean hartutako erabakien aurka birrabiatze eskea aurkez daiteke, hilabeteko epean. Epe hori doakionak hartu den erabakiaren jakinerazpena jaso osteko egunean hasiko da. Jazarpenak azaroaren 26ko 30/1992 Legeari jarraiki ihardupidetuko dira.

Aipatu jazarpenen gaineko erabakiak amaiera emango dio administrazio-bideari.

87. Artikulua

Ordenantza honetako 81. art.ko 4. atalak eta 82. art.ko 2. atalak aipatzen duten deskargu-idazkirik ez bada aurkeztu, adierazitako gertaerak, hartuko den erabakiaren oinarri izango direnak, zein izango dira inpugnatuak izan errekurtsioan; errekurtsioa haien kalifikazioan akatsak egon direla edo ezarritako zigorraren graduazioa zuzena ez delako adierazpenetan baino ezin izango da oinarritu, hala badagokio.

88. Artikulua

Birrabiatze eskeak ihardupidetzeko ez da beharrezkoa dagokion Udal Bulegoan isunaren zenbateko osoa ordaindu delako egiaztagiria gortekina aurkeztea birrabiatze eskearekin batera.

89. Artikulua

Jarritako isunak dirutan ordaindu beharko dira, zigorerabakiak indarra hartu duenetik hasita hamabost eguneko epea igaro aurretik. Zigor-erabakia indarrean egongo da doakionak isuna jarri zaiolako jakinerazpena jaso ondoren, hilabetean ez badu birrabiatzeeskerik aurkezten. Isunak ordaintzeko ezarritako aldia igaroz gero, %20ko gainkargua izango dute.

90. Artikulua

Ordenantza honetako aginduak urratzen dituenak jarri zaion isunaren jakinerazpena jaso ondoko hamabost egunen barruan ordaindu ahal izango du isunaren zenbatekoa, arau-urrapena ez badago Lege-Penaletan sartuta edo arauak ez badakar berarekin batera gidatze-baimenaren baliogabetzea, Lehen hamabost egun horietan ordainduz gero, %30ko beherapena egingo zaio.

91. Artikulua

Ordenantza honetako isun-koadroan zehazturiko arauurrapenek, Zirkulazio Kodigoaren 289. art. arekin bat datozenak, eta dagozkien diru-isunek, urrapena egin duenari gidatze-baimena hiru hilabetera arteko aldi batez ken diezaiotela ere erakar dezakete. Zigor bera ezarriko zaio trafikoko arauak behin eta berriz urratzen dituenari, hots, azken hamabi hilabeteetan sei isun baino gehiago jarri zaizkionari.

Gidatze-baimena kentzearena Trafikoko Lurralde Ordezkaritzari dagokio, hori egiteko aginpidedun Udal Agintaritzaren salaketa eduki beharko duelarik.

Gidariak gidatze-baimena kenduta duen aldian beste ibilgailu bat gidatzen badu, hiru hilabete gehiagoz kenduko zaio baimena.

92. Artikulua

Aurreko art.ko lehen ahapaldiak aipatzen dituen arauurrapenek arau-urratzailea arriskutsua izan daitekeela ikuserazten badute, Udal Agintaritzak arau-hauslearen lehenagoko gertakariak bidaliko ditu aginpideun Epaitegira, arau-hausleak egindakoa lege-haustea edo hutsegitea den ikus dezaten.

93. Artikulua

Eranskineko isun-koadroan agertzen diren isunen zenbatekoak Udal Agintaritzak gutxienez ezar ditzakeenak dira. Gehienez ezar ditzakeenak, Trafiko eta Bide Segurtasunari buruzko Legean agertzen direnak dira.

ISUN-KOADROA

94. Artikulua

Ordenantza honetako 4. artikulua hautsi egiten da, trafikoa erregulatzeko Agenteek egiten dituzten seinale eta oharrak betetzen ez badira.

Arau-urrapen hori hutsegite LARRI bezala zigortua izango da 92tik 301 eurora bitarteko isuna jarritz, baldintzen arabera. Horrelakoetan, Trafiko-Ordezkaritzari jakineraziko zaio beti, arau-hausleari indarreango legeriaren arabera, karneta kendu behar zaionentz ikusteko.

95. Artikulua

Ordenantza honetako 5. artikulua hautsi egiten da ezarritako abiadura-mugak gainditu egiten badira.

Arau-urrapenak honelaxe zigortuko dira:

—8 euro gainditu den km. /orduko bakoitzeko.

—Gehienez 10 km. /orduko gehiago: 80 euro.

—Gehienez 20 km. /orduko gehiago: 160 euro.

—Gehienez 30 km. /orduko gehiago: 240 euro.

—Hortik gora: 301 euro.

—Gidatzeko baimena kentzea ea ziur.

96. Artikulua

Ordenantza honetako 7. artikulua hautsi egiten da abiaduralehiaketak eginez gero edota, inolako zergatirik gabe, astiroegi gidatuz beste gidarien joaitea oztopatuz gero.

Arau hau ez betetzeagatiko isunak, hutsegite LARRI bezala ulertuko dira eta, kasuan kasu, 92 eta 301 euro bitartekoak izango dira.

97. Artikulua

Ordenantza honetako 8. artikulua hautsi egiten da arau horretan aurrikusitako kauzino-neurriak hartzen ez badira.

Arau hau ez betetzea hutsegite ARIN bezala zigortuko da 60 euroko isun batekin. Horrek ez du salbuesten egintza zigorgarri hori berariaz aurreikusitako beste arau-hauste bat izatetik.

98. Artikulua

Ordenantza honetako 9. artikulua hautsi egiten da abiadura bat-batean gutxiagotuz gero.

Arau-hauste hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 60 eurotako isun batekin.

99. Artikulua

Ordenantza honetako 10. artikulua hautsi egiten da zirkulazio seinaleak jarri, aldatu eto kendu egiten badira.

Arau-urrapen hori hutsegite LARRI bezala zigortuko da 150 eurotako isun batekin.

100. Artikulua

Ordenantza honetako 11. artikulua hautsi egiten da ondoren adierazten den zerbait eginez gero:

—Eskuinaldetik ez gidatzea.

—Lerro jarraiak gainditzea.

—Erreilez aldatzea, aurreratzeko ez denean.

—Ibilgailu pisutsu eta astiro doazenak eskuinaldetik ez daitezela joan.

—Lerro jarraieko marka bialen gainetik zirkulatzea.

Arau-urrapen horiek hutsegite ARIN bezala zigortuko dira 60 eurotako isun batekin. Beste erabiltzaile batzuentzat arrisku egoerarik sortuko balitz, hutsegite LARRITZAT hartuko litzateke eta 92 eta 301 euro bitarteko isun batekin zigortuko litzateke.

101. Artikulua

Ordenantza honetako 12. artikulua hautsi egiten da, artikulua horretan aipatazen diren neurriak, ibilgailua martxan jartzen denean hartu beharrekoak, hartzen ez badira.

Arau-hauste hori hutsegite ARIN bezala zigortua izango da 60 eta 90 euro bitarteko isunarekin.

102. Artikulua

Ordenantza honetako 13. artikulua hautsi egiten da Trafiko eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen norabide aldaketei buruzko 28. art. an aipatzen diren arauak betetzen ez badira.

Arau-hauste hori hutsegite arin bezala zigortua izango da 60 eta 90 euro bitarteko isunarekin.

103. Artikulua

Ordenantza honetako 14. artikulua hautsi egiten da, noranzko-aldaketak egiterakoan hartu behar diren neurriei buruz esaten dena betetzen ez bada.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 72 eurotako isunarekin.

104. Artikulua

Ordenantza honetako 15. artikulua hautsi egiten da Debekatuta dagoen kasuetan aldatuz gero martxa-zentzua.

Arau-hauste hori honelaxe zigortuko da:

—c) atala: Hutsegite LARRIA, 150 euro.

—Beste atal guztiak: Hutsegite ARINA, 72 euro.

105. Artikulua

Ordenantza honetako 16. artikulua hautsi egiten da, artikulua horretan xedatutakoa betetzen ez bada.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 60 eurotako isunarekin.

106. Artikulua

Ordenantza honetako 17. artikulua hautsi egiten da bide ematen ez bada.

Arau-urrapen hori isun hauek ezarriz zigortuko da:

—a), b), c), e), f) atalak: Hutsegite LARRIA, 96 euro.

—d) atala: Hutsegite ARINA, 60 euro.

—b), c), e) eta f) atalak: gerta daiteke gidatze-bai mena kentzea.

107. Artikulua

Ordenantza honetako 18. artikulua hautsi egiten da igarotzen uzten ez bada.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 60 eurotako isunarekin.

108. Artikulua

Ordenantza honetako 19. artikulua hautsi egiten da aurreratzen uzten ez bada.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 60 eurotako isunarekin.

109. Artikulua

Ordenantza honetako 20. artikulua hautsi egiten da, aurreraketak egitean Trafiko eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen 36. art. An xedatutakoa betetzen ez bada.

Arau-hauste hori hutsegite LARRI bezala zigortuko da 92 eta 301 euro bitarteko isunarekin, kasuan kasu.

Gerta daiteke gidatze-baimena ere kentzea.

110. Artikulua

Ordenantza honetako 21. artikulua hautsi egiten da zig-zag eran aurreratzen bada.

Arau-urrapen hori hutsegite LARRI bezala zigortuko da 300 eurotako isunarekin .

Gerta daiteke gidatze-baimena ere kentzea.

111. Artikulua

Ordenantza honetako 23. artikulua hautsi egiten da atzera-martxako maniobrari ekitean beharrezko neurriak hartzen ez badira.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 60 eurotako isunarekin.

112. Artikulua

Ordenantza honetako 26. artikulua hautsi egiten da zirkulazioa kongestionaturik dagoenerako emandako aginduak betetzen ez badira.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 60 eurotako isunarekin.

113. Artikulua

Ordenantza honetako 27. artikulua hautsi egiten da tegi itxi baten barruan bi minutu baino gehiago geldirik egon behar izanda, ibilgailuaren motorra itzaltzen ez bada.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 60 eurotako isunarekin.

114. Artikulua

Ordenantza honetako 28. artikulua hautsi egiten da garraio kolektiboko ibilgailuei ez bazaie zirkulazioa errazten.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 60 eurotako isunarekin.

115. Artikulua

Ordenantza honetako 30. artikulua hautsi egiten da, ibilgailua gelditzeari buruz emandako arauak betetzen ez badira.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 60 eurotako isunarekin. Arau-urrapenak asaldatzerik sortuko balu, hutsegite LARRItzat hartuko litzateke 96 eurotako isunarekin zigortuz.

116. Artikulua

Ordenantza honetako 31. artikulua hautsi egiten da zerbitzu publikoko ibilgailuek ez badituzte geltokien gaineko arauak betetzen.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 90 eurotako isunarekin.

117. Artikulua

Ordenantza honetako 32. artikulua hautsi egiten da, ikasleak geltokietatik kanpo jasoz gero.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 90 eurotako isunarekin.

118. Artikulua

Ordenantza honetako 33. artikulua hautsi egiten da Debekatuta dagoen tokiren baten geldituz gero.

Arau-urrapen hori isun hauek jarritz zigortuko da:

—a), h), eta i) atalak: Hutsegite LARRIA, 96 euro.

—Gainontzeko atalak: Hutsegite ARINA, 72 euro.

119. Artikulua

Ordenantza honetako 36. artikulua hautsi egiten da, ezarritako era ez den beste batean, hau da, martxaren zentzuan ez den beste era batean, aparkatzen bada.

Arau-urrapen horihutsegite ARIN bezala zigortuko da 60 eurotako isunarekin.

120. Artikulua

Ordenantza honetako 37. artikulua hautsi egiten da, 37. artikulua horretan agertzen diren arauak betetzen ez badira.

Arau-urrapen horihutsegite ARIN bezala zigortuko da 60 eurotako isunarekin.

121. Artikulua

Ordenantza honetako 39. artikulua hautsi egiten da, baimendutako orduetatik kanpo aparkatuz gero.

Arau-urrapen horihutsegite ARIN bezala zigortuko da 60 eurotako isunarekin.

122. Artikulua

Ordenantza honetako 40. artikulua hautsi egiten da, Debekatuta dagoen tokietan aparkatuz gero.

Arau-urrapen horihutsegite ARIN bezala zigortuko da 60 eurotako isunarekin. Gelditzea debekatuta dagoen lekuan aparkatzen bada, hutsegite LARRI bezala zigortua izango da, 96 eurotako isunarekin.

123. Artikulua

Ordenantza honetako 41. artikulua hautsi egiten da, artikulua

horretako balizkoak gertzen badira.

Arau-hauste hori aurreko artikuluan aipaturiko atalen arabera isuna ezarri zigortuko da; horrez gain 60 euro. ordaindu beharko dira ibilgailua ibilgetzeko erabili den tresna mekanikoa kentzeko.

124. Artikulua

Ordenantza honetako 46. artikulua hautsi egiten da, artikulua

horretan ezarritako betekizunen bat betetzen ez bada.

Arau-urrapen hori hutsegite LARRI bezala zigortuko da 92 eta 301 euro bitarteko isunarekin.

125. Artikulua

Ordenantza honetako 47. artikulua hautsi egiten da seinaleei eta kale-bideko beste elementu batzuei kalteak sortaraziz gero.

Arau-hauste hori isunaz zigortuko da, honelaxe:

—Nahita egin bada: Hutsegite LARRIA, 300 euro.

—Gura ez dela egin bada: Hutsegite ARINA, 60 euro.

126. Artikulua

Ordenantza honetako 48. artikulua hautsi egiten da, artikulua horretan agertzen den agindua betetzen ez bada.

Arau-urrapen hori hutsegite LARRI bezala zigortuko da 120 eurotako isunarekin.

127. Artikulua

Ordenantza honetako 49. artikulua hautsi egiten da:

—Segurtasun uhala erabiltzen ez bada: Hutsegite ARINA, 60 euro.

—Kasku homologatua erabiltzen ez bada: Hutsegite ARINA, 60 euro.

128. Artikulua

Ordenantza honetako 50. artikulua hautsi egiten da:

- a) Ibilgailuak Trafiko eta Lege Segurtasunari buruzko Legeak agintzen dituen baldintzak betetzen ez badi tu.
- b) Legeak agintzen duen dokumentazio gabe zirkulatuz gero.

Arau-hauste hori honelako isunaz zigortuko da:

—a) atala: Legeak frakzio espezifikoko bakoitzerako ezarritakoa.

—b) atala: Trafiko eta Lege Segurtasunari buruzko Legearen 59 eta 60 artikuluetan ezarritakoa.

129. Artikulua

Ordenantza honetako 51. artikulua hautsi egiten da, gaizki argiztaturiko kale-bideetan argi laburrak piztuta eramanda zirkulatzen ez bada.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 60 eurotako isunarekin.

130. Artikulua

Ordenantza honetako 52. artikulua hautsi egiten da, zarata gehiegi eginez gero.

Arau-urrapen hori isunaz zigortuko da, honelaxe:

—4. atala: Hutsegite ARINA, 90 euro.

—Gainontzeko atalak: Hutsegite ARINA, 60 euro.

131. Artikulua

Ordenantza honetako 53. artikulua hautsi egiten da ke edo gas gehiegi botatzeagatik.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 60 eurotako isunarekin.

132. Artikulua

Ordenantza honetako 54. artikulua hautsi egiten da 54. art. An aipatzen den sustantziaren baten eraginpean gidatzen bada.

Arau-hauste hori hutsegite LARRI bezala zigortuko da 120 eta 300 euro bitarteko isunarekin, Trafiko eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen 12. art. an aurrikusitako balizkoen arabera.

133. Artikulua

Ordenantza honetako 54 bis artikulua hautsi egiten da zirkulazioa, aparkatzea edo seinaleen ikuspena eragoz dezan trabaren bat jarriz gero.

Arau-urrapen hori hutsegite LARRI bezala zigortuko da 96 eurotako isunarekin.

134. Artikulua

Ordenantza honetako 56. artikulua hautsi egiten da, baimenik gabe filmatzen bada kale-bidean.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 90 eurotako isunarekin.

135. Artikulua

Ordenantza honetako 57. artikulua hautsi egiten da baimenik gabe burutzen badira kirol-frogak kale bidean.

Arau-hauste hori partaide bakoitzeko hutsegite ARIN bezala zigortuko da, 30 eta 90 euro bitarteko isunarekin.

136. Artikulua

Ordenantza honetako 62. artikulua hautsi egiten da zamalanak burutzeko emandako arauak betetzen ez badira.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 60 eurotako isunarekin.

137. Artikulua

Ordenantza honetako 63. artikulua hautsi egiten da, zamalanak artikulu horretan ezarritako eremutik kanpo burutzen badira.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 60 eurotako isunarekin.

138. Artikulua

Ordenantza honetako 65. artikulua hautsi egiten da kale bidean edukinontziak baimen-gabe jarritz gero.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 90 eurotako isunarekin.

139. Artikulua

Ordenantza honetako 67. artikulua hautsi egiten da agindu horretan aipatzen diren ibilgailuek baimen berezi gabe zirkulatzen badute.

Arau-urrapen hori hutsegite LARRI bezala zigortuko da 92 eta 301 euro bitartetako isunarekin.

140. Artikulua

Ordenantza honetako 68. artikulua hautsi egiten da artikulua horretan aipatzen diren ibilgailuek baimenik gabe zirkulatzen badute.

Arau-urrapen hori honelaxe zigortuko da:

—1., 2. eta 3. atalak: Hutsegite LARRIA, 120 euro.

—4. eta 5. atalak: Hutsegite ARINA, 60 euro.

141. Artikulua

Ordenantza honetako 69. artikulua hautsi egiten da pertsonak garraiaten dituzten aberezturiko ibilgailuek baimendutako toki eta orduz kanpo zirkulatzen badute.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 60 eurotako isunarekin.

142. Artikulua

Ordenantza honetako 70. artikulua hautsi egiten da Zirkulazio- Kodigoko 64. art.ko aginduak betetzen ez badira.

Arau-urrapen hori hutsegite LARRI bezala zigortuko da 92 eta 301 euro bitartetako isunarekin.

143. Artikulua

Ordenantza honetako 71. artikulua hautsi egiten da gidari-eskolak araupetzen dituzten arauetarikoren bat urratuz gero.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 90 eurotako isunarekin.

144. Artikulua

Ordenantza honetako 72. artikulua hautsi egiten da erreil erreserbatuetatik zirkulatuz gero.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 90 eurotako isunarekin.

145. Artikulua

Ordenantza honetako 74. artikulua hautsi egiten da zirkulazioa baimenik gabe etetzen bada, edota seinale eta oharrak baimenik gabe jarritz gero.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 90 eurotako isunarekin.

146. Artikulua

Ordenantza honetako 75. artikulua hautsi egiten da ordutegi mugak errespetatzen ez badira.

Arau-urrapen hori hutsegite ARIN bezala zigortuko da 6

0 eurotako isunarekin.

Amorebieta-Etxanon, 1993ko azaroaren 22an.—Alkatea